



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urriaren 27a

13. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Iruñetik Madrilera bitarteko prestazio handiko trenbide loturak azkartzeko gauzatzen ari den politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean etxebizitzaren egungo egoera aztertzeko ponentzia bat eratzea proposatzen da, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da akordio bat izenpe dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Endarlatsatik Behobiara bitarteko errepideari soluzioa eman diezaion, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da enbrioien zelula amen gaineko ikerketa zientifikoa susta dezan, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztua (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean lan arloan dagoen ezegonkortasun handia ebaluatzeko ponentzia bat eratzea proposatzen da, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Tuterako katedrala zaharberritzeko lanei buruzkoa, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak egina (10. or.).
- Galdera, Diario de Navarrari emandako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Azkoieneren suhiltzaile parke bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (12. or.).

- Galdera, Uxueko santutegia zaharberritzeko lanei buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egin [\(12. or.\)](#).
- Galdera, Uxueko erretore-etxearen egoerari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egin [\(13. or.\)](#).
- Galdera, pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna [\(14. or.\)](#).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Iruñetik Madrilera bitarteko prestazio handiko trenbide loturak azkartzeko gauzatzen ari den politika orokorrari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Iruñetik Madrilera bitarteko prestazio handiko trenbide loturak azkartzeko gauzatzen ari den politika orokorrari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, osoko bilkura batean honako jabeldura hau tramitatzea eskatzen du. Jabelduraren bidez jakin nahi da zer-nolako politika orokorra egin duen eta eginen duen Nafarroako Gobernuak, Iruñetik Madrilera bitarteko prestazio handiko trenbide loturak azkartzeko eta etorkizunean eraikiko den Nafarroako abiadura handiko korridoreak horrelako trenen nazio- eta nazioarte-esparruko sareekin bat egiteko.

Zioen azalpena:

Nazioako azken gobernuek etorkizunari begira dauzkaten planek jasotzen dute tren-azpiegiturak funtsean hobetu beharra eta distantziaren kulturaren ordez denboraren kulturari eustea, tren-garraioa izan dadin, denboraren faktorea efizientzia, segurtasun eta kalitate faktoreekin uztarturik, bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko hautaturiko

bitartekoetako bat, autoaren, autobusaren edo hegazkinaren ordez. Hori bat dator Europako Batasuneko herrietako joera nagusiarekin, haietan trena ari baita antolatzen etorkizuneko komunikazio- eta garraio-sistema gisa.

Horregatik, azken urteotan etorkizuneko Espainia planifikatzen ari da azpiegituren arloko politika orokorraren esparruan, eta litekeena da, trenari dagokionez, beste bitasun bat gertatzea: AVE trena duen Espainia, garapenari eta modernotasunari irekia, aukera handiak dituena bere faktore endogenoak baliarazteko eta kanpoko inbertsioak erakartzeko, zeinek, zalantzarik gabe, funtsezko eragina izanen baitute Espainiaren aurrerapenean eta hazkuntzan; eta beste Espainia: trenik gabeko edo tren zaharkitua duen Espainia, bere baliabide endogenoak baliarazteko alternatibarik gabekoa, eta kanpotik egin litezkeen inbertsioen ikuspegitik inolako erakargarritasunik ez duena.

Autonomia erkidego guztiek nahi dute euren lurraldean abiadura handiko tren bat jarri, eta Alderdi Popularrak, bere kanpainetan, eta nazioko gaur egungo gobernuek, etengabe eginiko agerraldietan, azken zazpi urte hauetan bere konpromisoari eutsi diote; alegia, aginduriko lerroak abiarazteari. Alabaina, agindutako AVE lineak hainbeste izanik, programaturiko inbertsioak hala-ko lau beharko lirarteke.

Agindutakoa eta kasuan kasuko Estatuko aurrekontuetan jasotakoa bat ez etortzearen ondorioz, errealitatean atzerapena ari da gertatzen, eta hori erabakigarria izan daiteke erkidego, erregio edo eskualde batek aurrerapausoak eman ahal ditzan garatuenak daudenekin batera, edo behin betiko gera dadin atzeratua edo asebetetasun aizun batean murgildua.

Nazioako gobernuek 1999ko urrian iragarri zuen tren-azpiegiturak kudeatzen dituen ente publikoak

2000-2007 Trenen Plan Zuzendarian guztira 2,3 bilioi pezeta inbertitzeko asmoa zeukala. Azken urteotan, abiadura handiko trenean eginiko inbertsioak Madril-Zaragoza-Barcelona-Frantziako muga lerrora bideratu dira.

Prozesu honetan nahasturik dago, halaber, Europako tren-sistemearekin bat egitearen auzia. Horrek behartzen du Espainiako moduluaren zabalera Europako modulura egokitzea, tren-sistema ezberdinak elkarri doitzeko, hori funtsezkoa baita Espainiako sarea Europakoan txertatzeko, Espainiako eta Frantziako mugetako eskualdeei interesatzen zaien bezala, euren lurraldeen garapenerako aukera den aldetik.

Nafarroako Foru Komunitatearen etorkizunari dagokionez, bi helburu daude, osagarriak eta premiazkoak:

- Lehena, berehalakoena, Madril eta Iruña lotzea prestazio handiko trenen bitartez (alegia, abiadura handiko trenen bidez). Tren horiek Zaragozako Plasencia de Jalón herriko garraio anitzeko geltokitik abiatuko dira eta, gobernuak dioenez, 2002. urtea amaitu aurretik Iruñetik Madrilera hiru ordutan joan ahal izatea ahalbidetuko dute.

- Bigarren helburua da korridore mediterranearra korridore atlantiarrarekin lotzea, proiektuan dagoen Nafarroako korridorearen bitartez, eta Espainia trenaren bitartez Frantziarekin lotzea Nafarroan barrena. Lotura horiek 2008 baino lehenago eginak egonen direla iragarri da.

Bi ekintza horiek gauzatzeko behar diren inbertsioak 260.000 milioi pezetakoak direla ebaluatu du 2002-2007 eperako azpiegituren planak.

Oso erronka garrantzitsua da foru erkidegoaren etorkizunerako, eta eragile politiko, ekonomiko eta sozial guztiak duten erantzukizuna da, bi helburu horiek lortzea ez ezik, lorpen hori ahalik eta epe laburrenean eta kalitate-baldintza onenetan gauzatea ere. Horretarako, bizkortu egin behar dira aurretiazko azterlanak, aurreproiektuak, proiektu-idaztea eta azpiegituren eraikuntza.

Horregatik, Nafarroako Gobernuaren zereginak eta nazioko gobernuarekin duen harremanak eragin erabakigarria daukate gai honetan. Oso garrantzitsua da bi gobernu horiek konpromiso bat erdiestea eta akordioetara iristea, gai honi Nafarroarentzat eragingarriena izanen den moduan heltzeko. Alabaina, parlamentu-talde sozialistaren iritziz, Nafarroako eta nazioko gobernuen aldetik orain arte borondate-adierazpenak, aurrerapenak, azterlanak eta azterlan gehiago besterik ez da izan, eta sorturiko dinamika izan da prozesuak eta

espediente-tramitazioa moteldu eta izoztea, horrela AVE birtuala saltzen segitzeko.

Jakina, aldian-aldian eta, batez ere, hauteskunde aurreko garaietan, gobernuak Iruñetik Madrilera joaten dira, eta kasuan kasuko ministroarekin elkarrizketak egiten dituzte, baita gobernuko lehendakariarekin berarekin ere. Joan-etorria alderantzizkoa ere izan daiteke: nazioko gobernuko lehendakaria, ministroak eta goi-karguak Iruñera hurbiltzen dira komeni denean, promesaz beteta.

Kasu horietan guztietan ez dute aukerarik galtzen ohiko argazkiak ateratzeko, behar diren prentsaurrekoetarako dei egiteko, administrazio publikoek, haiei loturiko enpresek edo kidekoak diren sektore ekonomiko edo mediatikoek "ad hoc" antolaturiko eztabaida-guneetan, hitzaldietan eta mintegietan parte hartzeko. Eta aurreko urteetako berbera errepikatzen dute, honako ariketa erraz honetan jardunez: egitasmoak aipatu eta iragarri bai, baina horiek gauzatzeko erantzukizuna hartu ez, itxaropena izanez herritarrak ez direla ohartuko, beren oroimen ahuala dela medio, aurkezturiko egitasmoa eta bost urte lehenagotik agintzen ari direna berbera direla.

Horrela, adibide gutxi batzuk besterik ez jartzearren, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariak 1997ko abuztuan adierazi zuen epe laburrean egonen zela prest abiadura handiko trenak Nafarroan eginen zuten ibilbidea ezagutzeko azterlana, Sustapen Ministerioak 1996an kontratatua, 80 milioi pezetako kostupean. 1999ko ekainean, Nafarroako Gobernuko arduradunek adierazi zuten hurrengo hamarkadan eraikia egonen zela Madril-Iruña-Frantzia abiadura handiko trenbidea. Bistan da, gobernuak denbora neurtzeko modua ez datorrela bat teknologiaren eta globalizazioaren aroan egiazki erabiltzen den neurtzeko moduarekin. Abiadura horretan segituz gero, gauza ziurra da Nafarroak trena galduko duela berriro ere.

Horrenbestez, eta Nafarroak trena berriro ere ez galtzea azken helburutzat duela, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako jabeldura hau proposatzen du, Parlamentuko osoko bilkuran eztabaidatzeko. Jabelduraren bidez jakin nahi da zer-nolako urrats eman dituen eta emateke dituen Nafarroako Gobernuak nazioko gobernuarekiko harremanean, Iruña eta Madril arteko prestazio handiko trenbide lotura azkartzeko, eta Nafarroak etorkizunean izanen duen abiadura handiko korridoreak horrelako trenen sare nazional eta nazioartekoekin bat egiteko.

– Nafarroako Foru Komunitatean abiadura handiko trenen korridorea eraikitzeke proiektuaren gaur egungo egoera, hura eraiki eta abiarazteko aurreikusitako diren datak eta guzti.

– Zer-nolako ekintza egin dituen Nafarroako Gobernuak nazioko gobernuarekiko harremanaren esparruan, Iruña eta Madrilen arteko prestazio handiko trenen bidezko lotura azkartzeko. Zer-nolako konpromiso lortu diren nazioko gobernuaren aldetik, Iruña eta Madrilen arteko prestazio handiko trenen bidezko lotura azkartzeko.

– Zer-nolako ekintza egin dituen Nafarroako Gobernuak nazioko gobernuarekiko harremanen

an, azpiegiturei buruzko plan nazionalen sar dadin Nafarroako abiadura handiko korridorea, halako moldez non Nafarroa mediterraniar korridorearekin eta atlantiar korridorearekin lotuko baita. Zer-nolako konpromiso lortu diren nazioko gobernuaren aldetik, azpiegiturei buruzko plan nazionalen sar dadin Nafarroako abiadura handiko korridorea, halako moldez non Nafarroa mediterraniar korridorearekin eta atlantiar korridorearekin lotuko baita.

Iruñean, 2003ko urriaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean etxebizitzaren egungo egoera aztertzeke ponentzia bat eratzea proposatzen da.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean etxebizitzaren egungo egoera aztertzeke ponentzia bat eratzea proposatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkurak onetsi dezan. Mozioan eskatzen da Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean ponentzia bat sor dadin, Nafarroan etxebizitza-alorrean gaur egun dagoen ego-

era aztertzeke, eta egoera horri aterabide bat ateratzeko gomendioak egiteko.

Etxebizitzari buruzko ponentzia bat sortzeko proposamenaren azalpena:

Datorren abenduaren 6an 25 urte beteko dira Espainiako herriak, eta Nafarroakoak, Espainiako 1978ko Konstituzioa erreferendum bidez berretsi zutenetik. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen iritziz, Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrenaren ospakizuna herritarrei hurbiltzeko modu egokia litzateke hartan jasotako arauak errealitatean izan duten aplikazioa aztertzea eta Konstituzioak aipatzen dituen eskubideen gauzatzeari buruzko oniritziaren norainokoa ebaluatzea; bereziki, nafar herritarren kezka nagusienekin zerikusia duten horien gauzatzeari buruzkoa; adibidez, etxebizitzarekin eta enpleguarekin zerikusia dutenena.

Etxebizitzari dagokionez, Espainiako Konstituzioak ezartzen du espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela, eta botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituztela, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desagerrarazteko, interes orokorren arabera arautuko dutela lurraren erabilera.

Ondorioz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearentzat, Konstituzioko eskubide bat da etxebizitza, eta beharrezko ondasuna

da, ongizatea lortzeari begira pertsonen berdintasuna bermatzeko. Administrazio publikoen esku-hartzea funtsezkoa da lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuan, zeren eta, gizarte-ekimenik gabe, ezinezkoa baita etxebizitza-politika eraginkor bat egitea, biztanle-sektorerik behartsuenek, bereziki gazteek, etxebizitza lortzea ahalbidetuko duena eta lurzoru-jabeen espekulazioa eragotziko duena. Beraz, botere publikoek euren betebeharrak gisa hartu behar dute lurzoru publikoaren ondarea sortzea, araubide ezberdinetako (batez ere, alokairuko) babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea, laguntzak pertsonalizatzea eta zaharberritzeko pizgarriak ematea.

Gaur egun, etxebizitza eskuratzeko ahalegin ekonomiko oso neketsua egitera behartzen ditu etxebizitza baten bila dabiltzanak, eta helburu ezinezkoa bihurtzen da baldin eta ahalegin hori egiten dutenak gaizki ordainduriko behin-behineko lanpostu bat daukaten gazteak edo jende behartsua badira. Egoera hori gaur egungo etxebizitza-politikaren porrotaren erakusgarria da, ez baitira aurreikuspenak bete; izan ere, etxebizitza duinak guztion eskura egoteari buruz Konstituzioak agindutakoa ez da lortu; alde handiz, gainera.

Egoera hori ikusirik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Parlamentuak etxebizitzaren gaur egungo egoera sakonki aztertzea eta arlo honetan presako neurriak hartzeko gomendioak egitea, gaur egungo egoera gainditzeko eta gizartean gai honi buruzko eztabaida pizteko, era

horretan Konstituzioko agindua bete dadin eta beharra daukaten herritar guztiak etxebizitza duin baten jabe edo erabiltzaile izan ahal daitezen.

Proposatutako erabakiaren testua:

1. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean ponentzia bat sortzea "Nafarroan etxebizitzaren arloko gaur egungo egoera aztertzeko eta egoera horretatik ateratzeko gomendioak egiteko".

2. Ponentziaren lanaren xedea izanen da Nafarroan etxebizitzaren egoera aztertzea eta ondorio batzuetara iritsi nahiz egoera horretatik ateratzeko gomendio batzuk egitea.

3. Parlamentu-taldeek haien proposamenak aurkeztuko dituzte, lana bera eta proposamenei buruzko eztabaida zehazteko. Horretarako, gure taldearen proposamena jasotzen duen dokumentua erantsi dugu.

4. Ponentziak askotariko pertsona, aditu eta gizarte-eragileei euren iritzia eta proposamenak eskatuko dizkie.

5. Eginarazitako lana amaituko da gehiengoak onetsirik ondorioak eta proposamenak biltzen dituen txosten bat egitean. Adierazten diren boto partikularrak ere jasoko ditu dokumentu horrek. Lan hori egiteko epea hiru hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.

Iruñean, 2003ko urriaren 14an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio bat izenpe dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Enderlatsatik Behobiarra bitarteko errepideari soluzioa eman diezaion.**

### *FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio bat izenpe dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Enderlatsatik Behobiara bitarteko errepideari soluzioa eman diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan zuzendariak (2002-2009) ezartzen du, bere erabaki-proposamenetan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen duela Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatzera, gehiago luzatu gabe, Enderlatsa-Behobia tartearen konponbidea, hobekuntza amaituta egon dadin 2007. urtean.

Aurrekariak, batzordeetako eta parlamentu-agerraldietako aurretiazko eztabaidak eta gaiari buruzko dokumentazioa aztertu ondoren, begi-bistakoa da bi arrazoi daudela gai hau gararazita

egoteko: alde batetik, titulartasunaren auzia, Gipuzkoaren lurraldetik igarotzen den Nafarroaren bidea baita; eta, bestetik, antza denez itxaropen handirik ez izatea Gipuzkoako Aldundiak hobekuntza-lanak egiteko duen asmoan, ez eta horretarako epeetan ere.

Hori dela-eta, Askotariko parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkurak onets dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gipuzkoako Aldundiarekin akordio bat sina dezan, zeinaren bidez Gipuzkoako Aldundiari lagako baitio errepidearen titulartasuna, baldin eta, betiere, hark behar diren lanak egiten baditu.

Iruñean, 2003ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enbrioien zelula amen gaineko ikerketa zientifikoa susta dezan.**

**EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enbrioien zelula amen gaineko ikerketa zientifikoa susta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Gero eta froga argiagoak daude enbrioien zelula amek edozein zelula nahiz ehun oneratzeko gaitasun izugarria daukatela. Izan ere, behar diren baldintzetan, zelula horiek, haiek sortu zituzten bikotearen ugalketan erabiliko ez diren eta beste emakume batengan ere ezarriko ez diren enbrioi horietatik datozenak, giza-gorputzean dauden 200 zelula mota sortzeko bereiz daitezke.

Enbrioien zelula amekin eginiko terapien ahalmen medikoa izugarria da eta epe laburrean, zelulen degenerazioa dakarten gaixotasunetan aplikatu liteke; esate baterako, diabetes, parkinson, alzheimer, huntingtonen korea eta abar bezalako gaixotasunetan. Halaber, agian epe luzeagoan, zelula amak organo osoetan edo ehun konplexuetan eragina duten gaixotasunak tratatzeko edo, baita ere, gaixotasun immunologikoak tratatzeko erabili ahalko dira, esperimentazioko animalietan zelula amekin eginiko saiakuntzetan erakutsi denez.

Espanian, Laguntza bidezko ugalketarako teknikei buruzko 35/1988 Legeak ezarri zuenez, in vitro ernalketa programa batean erabili gabe gertatu diren enbrioiak bi urtez utziko dira enbrioien

banku baten eskuetan, eta bost urteren buruan enbrioia beste emakume baten umetokira aldatu behar da, edo, hori egin ezean, suntsitu egin behar dira. Hala eta guztiz ere, Espainian milaka enbrioi daude bost urte baino denbora luzeagoan izoztuta, eta horiek ez dira sekula ezarriko. Horregatik eta enbrioi horietatik datozen zelulak Laguntza Bidezko Giza Ugalketaren Batzorde Nazionalaren esperimendazioan erabili izanari buruzko eztabaidaren garrantziarengatik, txosten bat egin zen, hain zuzen 2001eko azaroaren 26an argitara emandakoa. Bertan, laguntza bidezko giza ugalketako teknikan sobran geratu diren enbrioiak ikerketarako erabiltzeko aukera onartzen da, betiere ez kontserbatzeari edo suntsitzearen azken alternatiba gisa.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak premiatu nahi du gai honi buruzko ikerketa zientifikoa susta dadin, hau da, in vitro ernalketa programetatik arauz ezarritako bost urteak izoztuta iragan ondoren sobran geratzen diren enbrioiak zelula amei buruzko ikerketa zientifikoa, Nafarroak ere laguntza eman diezaien diabetesa, Parkinson gaixotasuna eta Alzheimer gaixotasuna bezalako gaixotasun kroniko eta endekapenezko ugari eta gaur egun sendaezinen tratamenduari buruzko ezagupenetan gertatzen ari diren etorkizun handiko aurrerape nei. Medicina birsortzaileari buruzko ikerketa horiek eginen dira behar bezalako berme etiko eta zientifiko-teknikoak izanik, eta horrelako ikerketarako biomedizina-arloko ikerkuntza-zentroen egiazko partaidetzarekin gauzatu beharko dira.

Iruñean, 2003ko urriaren 17an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Mozioa. Horren bidez, Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean lan arloan dagoen ezegonkortasun handia ebaluatzeko ponentzia bat eratzea proposatzen da.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean lan arloan dagoen ezegonkortasun handia ebaluatzeko ponentzia bat eratzea proposatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbe jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkurak onetsi dezan. Mozioan eskatzen da Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean ponentzia bat sor dadin, lan-arloko prekaritate handia ebaluatzeko eta hori murriztu eta lan-baldintzak hobetzeari buruzko proposamenak egiteko.

Ponentzia sortzeko proposamenaren azalpena:

Datorren abenduaren 6an 25 urte beteko dira Espainiako herriak, eta Nafarroakoak, Espainiako 1978ko Konstituzioa erreferendum bidez berretsi zutenetik. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen iritziz, Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrenaren ospakizuna herritarrei hurbiltzeko modu egokia litzateke hartan jasotako arauak errealitatean izan duten aplikazioa berraztertzea eta Konstituzioak aipatzen dituen eskubi-deen gauzatze-mailari buruzko iritzia neurtzea; bereziki, nafar herritarren kezka nagusiekin —hala nola enpleguaren gaineko guztiarekin— zerikusia duten horien gauzatze-mailari buruzko iritzia.



Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikulua jasotzen du espainiar guztiek lanerako duten eskubidea, eta beren beharrianak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea ere bai. Baina gaur egun dagoen prekariedade-mailaren ondorioz, aipaturiko eskubide konstituzionalak ez dauka erabateko eraginkortasunik.

2002n, Nafarroan sinaturiko lan-kontratuen ehuneko 89,9 aldi baterakoak izan ziren; horrela, bada, foru erkidegoko herritar ugari lan-arloko prekariedade egoera batean bizi dira; oso egoera urruna, kasurik gehienetan, lan eskubideduna eta behin betikoa lortzeko nahikaririk. Egoera horrek kaltetu egiten du haien gizarte-ongizatea eta ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, eta eragin negatiboa dauka lan-istripuen indizeetan.

Behin-behinekotasunaren tasa handiak, bestalde, ez du esan nahi Nafarroako enpresaren produktibitate- edo lehiakortasun-mailei mesede egiten dienik. Aldi berean, behin-behinekotasunak lotura dauka azpikontratazioak izan duen gorakada kontrolgabearekin, bai sektore pribatuan bai sektore publikotik sortzen diren edo sektore horrek berezkoak dituen jarduera askotan.

Nafar sozialistok beharrezko deritzogu behin-behinekotasun tasa handiaren zergatiak aztertze-ari, bai eta politika, gizarte eta enpresa arloetako eragile guztien artean horren murrizketa nabarmena ekarriko duten soluzioak bilatze-ari.

Administrazio publikoaren jarduera bera ez da egoera horrekin zerikusirik gabekoa. Alde batetik, bere egiturari aldi baterako kontratuen ehuneko handi bat agertzen duelako, eta bestetik, lanak eta zerbitzuak azpikontratatu edo pribatizatzearekin behin-behinekotasuna eragiten duelako. Eta, bestetik ere, ez dagoelako enplegua sortzeko xedez zuzenean edo zerga-kenkari gisa ematen diren dirulaguntza publikoen jarraipena egiteko politikarik.

Horrenbestez, parlamentu-talde sozialistak Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean ponentzia bat sortzea proposatzen du, soluzioak eta gomendioak bilatzeko gune bihurtzea xede duela. Soluzio eta gomendio horiek nahitaez bete beharko lituzke sektore publikoak, eta, berariazko pizgarri batzuekin batera, borondatezkoak lirateke enpresentzat. Estatuaren esparruan kasuan kasuko lege-aldaketa erakar lezakeen proposamenik ez da bazterten.

Proposaturiko erabakiaren testua:

1. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean ponentzia bat eratzea, lan arloan dagoen prekariedade handia ebaluatzeko eta hura murriztu nahiz lan-baldintzak hobetzeko proposamenak egiteko.

2. Ponentziaren lanaren xedea izanen da Nafarroan lan-prekariedadearen egoera aztertzea eta ondorio batzuetara iristeko nahiz egoera horretatik ateratzeko gomendio batzuk egitea.

3. Parlamentu-taldeek haien proposamenak aurkeztuko dituzte, lana bera eta proposamenei buruzko eztabaida zehazteko. Horretarako, gure taldearen proposamena jasotzen duen dokumentua erantsi dugu.

4. Ponentziak askotariko pertsona, aditu eta gizarte-eragileei euren iritziak eta proposamenak eskatu ahalko dizkie.

5. Eginarazitako lana amaituko da gehiengoak onetsirik ondorioak eta proposamenak biltzen dituen txosten bat egitean. Adierazten diren boto partikularrak ere jasoko ditu dokumentu horrek. Lan hori egiteko epea hiru hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.

Iruñean, 2003ko urriaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Tuterako katedrala zaharberritzeko lanei buruzkoa.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak Tuterako katedrala zaharberritzeko lanei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Tuterako katedralean obra batzuk egiten ari dira, eta obra horiek, dudarik gabe, garrantzitsuak

dira Nafarroarentzat. Corpas kontseilariak berak esan duenez, obrak atzeratu egin dira eta kostuak handitu.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Aurrez ikusi zen kostua, orain arteko gastua eta amaieran izanen duen kostuaren kalkulua. Kostua aurrez ikusitakoa baino handiagoa bada, kostu-areagotze horien zehaztapena eta justifikazioa.

– Egiten al du eliza katolikoak ekarpenik kostu horietarako? Baiezkoan, zenbateko ekarpena da? Ezezkoan, zergatik ez?

– Obra noiz amaitzea aurreikusi da?

– Zer jarduera daude aurreikusita inauguraziorako?

– Tuteran ospatuko al da Antso erregearen jaiotzaren 1000. urteurrena? Beste non?

Iruñean, 2003ko urriaren 10ean

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Galdera, Diario de Navarrari emandako dirulaguntzei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Diario de Navarrari emandako dirulaguntzei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Komunikabideei esker, zenbait auzi eta jokabideren berri izan dugu komunikabide jakin baten bateraezintasuna dela eta.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Diario de Navarra-ri 2001, 2002 eta 2003. urteetan emandako dirulaguntzak eta kontzeptuen azalpena.

– Gobernuak “bateraezintasun” horren berri ba ote duen eta horri buruz zer iritzi daukan.

– Erantzuna baiezkoa edo departamentuak ez duela horren berri bada, exekutiboak zer proposatzen duen aipaturiko eta gauzatutako “baterazintasun” hori kontrolatzeko.

Iruñean, 2003ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraikitzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraikitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Haur eta lehen hezkuntzan dauden haur kopuruak gora egin du Zizur Nagusian; hori dela eta, zenbait kontaktu eta bilera egin dira zerikusia duten instituzioen artean (Hezkuntza Departamentua, Udala, herriko ikastetxe publikoak), eta denek uste dute beste ikastetxe publiko bat egin beharra dagoela.

“Camino de Santiago” ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak, 2003ko otsailean, ikastetxe berria 2004ko iraila baino lehen eraiki zezatela eskatu zuen; izan ere, bestela, gaur egun baino hamabi gela gehiago jarri beharko liriateke eta horrek funtzionamendu arazo larriak sortuko lituzke.

Hezkuntza Departamentuak, dirudienez, Zizur Nagusiko Udalarri herriko ikastetxearen barruan dagoen lur-sail bat lagatzeko eskatu dio —orain hareazko futbol zelai bat dago— ikastetxe publiko hant egiteko.

Horregatik guztiatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen du:

Hezkuntza Departamentuak zer asmo du Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko baten eraikuntzari begira?

Zer egoeretan dago ikastetxe berria eraikitze-ko lur-sailen lagapenaren tramitazioa?

Zer epetan aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak eraikiko dela eta hasiko dela funtzionatzen ikastetxea?

Zer beste neurri aurreikusi dira, aurreikusi badira, herri horretako eskolazte-eskaera gero eta handiagoari aurre egiteko?

Iruñean, 2003ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Izu Belloso

## **Galdera, Azkoieneen suhiltzaile parke bat eraikitzeari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Azkoieneen suhiltzaile parke bat eraikitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2003ko otsailaren 3ko 15. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren urriaren 30eko 162/2002 Foru Agindua argitaratu zen. Horren bidez, Azkoieneen 2002. eta 2003. urteetan suhiltzaileen parke bat eraikitze lanen kontratua esleitu zen; esleipenaren prezioa 1.761.809,18 eurokoa izan zen, BEZA barne, eta Construcciones Zósimo Zaratiegui, S.L. enpresak hartu zuen. Nafarroako Gobernuak eman izan dituen informazioen arabera, parke

hori suhiltzaile boluntarioen ardurapean egonen da.

Javier Caballero Martínez Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari berriak, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean 2003ko irailaren 18an egin zuen agerraldian esan zuenez, obrak amaitzeaz zuden eta parkea berehala hasiko zen funtzionatzen.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderei erantzutea eskatzen du:

Enpresari esleitu zitzaion kontratuaren arabera, zer egunetan ziren amaitzekoak eta ematekoak Azkoiengo suhiltzaile parkearen obrak? Benetan zer egunetan amaituko dira eta emanen dira obrak?

Zein izanen da, azkenean, obren kostua? Esleipenaren prezioan gorabeherarik izan bada, zergatik gertatu da halakorik?

Noizko dago aurreikusita Azkoiengo suhiltzaileen parkea funtzionatzen hastea?

Zenbat suhiltzaile boluntario aurreikusi da izanen dituela parkeak? Halakorik bada, zenbat hartu dira Azkoieneen? Zein dute antolamendua eta zein mendekotasun funtzionaleko araubidea?

Iruñean, 2003ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, Uxueko santutegia zaharberritzeko lanei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Uxueko santutegia zaharberritzeko lanei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Kultura kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Jakin izan dugu Uxueko santutegia zaharberritzeko lanetan aipatzeko moduko atzerapena izan dela. Elizako plazan jarritako informazio-gune

baten arabera, obren lehen faseak martxorako bukatuta behar zuen.

Egoera hori ikusirik, honako galdera hau egin diogu Kultura kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

- Ba al daki Kultura kontseilariak noiz egonen den bukatu Uxueko Santa Maria la Real santutegian egiten ari diren obren lehen fasea?

- Zer neurri hartu behar ditu Kultura kontseilariak obra horiek ahal bezain laster buka daitezten eta herritarrek nahiz Uxueko Ama Birjinari debozioa diotenen elizak behar diren baldintzetan bisitatu ahal izan ditzaten?

Iruñean, 2003ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, Uxueko erretore-etxearen egoerari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Uxueko erretore-etxearen egoerari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Kultura kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Joan den irailean Uxueko erretore berria izendatu zuten, eta hark erretore-etxean bizitzeari uko egiteak bertakoen harridura eragin du; hain zuzen

ere, parrokia horretatik pasa diren apaiz guztien etxebizitza ofiziala izan den horretan bizitzeari uko egiteak. Haren ezetzak badauka oinarririk; izan ere, inork ez zuen eraikinaren egoeraren berri. Erretore berriak eraikinaren hondamen-egoerari buruzko azalpenak eman ditu. Hondaturik daude bai atikoa bai eraikineko behealdeko solairuak ere. Jakin ahal izan dugunez, herriko igeltsero batek ezbehar bat izan zuen zapaltzen ari zen zoria erori egin zenean.

Egoera hori ikusirik, honako galdera hau egin diogu Kultura kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

- Zer neurri hartzeko asmoa dauka Kultura kontseilariak, Uxueko erretore-etxea, "Carlos II.aren Jauregi Etxea" izenaz ere ezaguna, hondatu eta desagertzea eragozteko?

- Kontseilariaren aburuz, Jauregi Etxearen hondamena eragozteko sarturik al dago Nafarroako erakundeek ondarea zaindu, babestu eta gordetzeko dauzkaten betebeharren multzoan?

Iruñean, 2003ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko galdera egin zuen: "Galdera, pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruzkoa".

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko irailaren 29ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urriaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo jarraikiz.

1.- Zenbat eskari aurkeztu zaizkio Nafarroako Gobernuari alargun pentsioak berdintzeko laguntzak jasotzeko eskatuz, 11/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak adierazitakoekin bat? Egin al da edo ari al da egiten inongo erroldarik edo kalkulurik jakiteko zenbat diren 11/2003ko Foru Legean aurreikusitako laguntza bereziak jasotzeko eskubidea duten alargunak?

Alargun pentsioak jasotzen dituztenengan eragina duten bi lege onetsi direnez denbora laburrean, bietako edozeinetarako balioko zuen eskabide bat prestatu zen eta iragarki bat argitaratu genuen informazioa zabaltzeko. 12.607 eskabide jaso ziren. Horietatik 6.995 eskabidek dute eskubidea laguntza jasotzeko.

2.- Zenbat eskari aurkeztu zaizkio Nafarroako Gobernuari 900 euroko laguntzak jasotzeko eskatuz, 16/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak adierazitakoekin bat? Egin al da edo ari al da egiten inongo erroldarik edo kalkulurik jakiteko zenbat diren 11/2003ko Foru Legean aurreikusitako laguntza bereziak jasotzeko eskubidea duten alargunak?

1. galderan ageri diren 12.607 horiek. Eskabide horietatik 1.860k eskubidea dute osagarria jasotzeko.

3- Eskari horietako zenbatek izan du baiezko erantzuna kasu horietako bakoitzean?

1.860 eskabideri baiezkoa eman zaio 2. galderak aipatzen duen 16/2003 Legearen arabera.

4. Eskari horietako zenbatek izan du ezezko erantzuna kasu horietako bakoitzean?

2.333 eskabideri eman zaio ezezkoa ez izateagatik eskubiderik ez kasu batean ez bestean.

5. Eskari horietako zenbat dauzka Nafarroako Gobernuak oraindik ebatzi gabe edo espresuki erantzun gabe kasu horietako bakoitzean?

6.955 eskabide daude oraindik ebazteko, eta zenbatekoren bat jasotzeko eskubidea izanen lukete 11/2003 Legea aplikatuz gero. Ez da erantzunik eman, Gobernuak Lehendakariak sustatutako konstituziokontarakosuneko errekurtsioa ebatzi zain.

1.450 eskabidek dokumentazioa aurkeztu behar dute.

6. Zer diru kopuru aurreikusi da 2203 urterako 16/2003 Foru Legea aplikatu eta baiezko erantzuna jaso duten eskariei aurre egiteko?

Legea aplikatu daitekeen unean beharrezkoa den kontusaila sortuko da.

7. Zer diru kopuru aurreikusi da 2203 urterako 16/2003 Foru Legea aplikatu eta baiezko erantzuna jaso duten eskariei aurre egiteko?

1.800.000 €

8. Nafarroako Gobernuak eten al du 11/2003 Foru Legean ezarritako laguntza berezietakoren bat, laguntza hori 2003ko uztailaren 22aren aurretik ematen hasia bazen ere —Auzitegi Konstituzionalak legearen indarraldiaren etena ofizialki jakinarazi zuen eguna—, ala 2003ko martxoaren 14tik 2003ko uztailaren 22ra arte hasi gabe zegoen laguntza horiek ematen? Prestazio horiek eten badira, zenbat dira eta zenbat dira baiezkoa jaso baina hasi gabeak?

Prestazioaren aplikazioa ez da hasi, beraz ez da bat ere eten.

9.- Igorri al zitzaion Nafarroako Kontseiluari Sanz jaunak 2003ko martxoaren 27an Diario de Navarran eginiko adierazpenetan aipatzen zuen foru dekretuaren zirriborroa?

Bai, eta Nafarroako Kontseiluak aldeko irizpe-  
na eman zuen 2003ko maiatzaren 19an.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak  
izan ditzan.

Iruñean, 2003ko urriaren 6an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseila-  
ria: Reyes Berruezo Albéniz



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	